PORRONTXO JAIAK

1998

IRAILAK

12, 16, 17, 18, 19, 20

Agurra

Atorrante Egiazalea:

Gainean dugu jada hainbeste itxaron dugun urteko momenturik zirraragarriena.Hemen dira...

PORRONTXO JAIAK 98

Beraz badakizu!! Ondo pasatzeko, harremanetarako, parrandarako, dantzarako eta nahi dituzun...ko guztietara-ko momenturik egokiena. Jakin badakizunez, kuadriletako zenbait partaide zein hainbat auzotarrek lan talde berriak osatu dituzte, honi esker aurtengo PORRONTXO JAIAK ohi baino osasuntsuago etortzen zaizkigu.Eskertzekoa da jende multzo honengatik jaso den bultzada. Jaiak ondo pasatzeaz gain, ezin ditugu ahaztu irailean gure artean izango ez ditugun auzoko preso Porrontxozaleak; Jose Mari, Armando, Joxian, Arantxa eta Karlos.

Besterik gabe jaiak alaitasunez eta giro jator batean igarotzera gonbidatzen zaituztegu.

BLUSAK ATERA, INDARRAK HARTU ETA KALERA!!



Aupa Egiatarrok! !

Aurten ere hemen gaude, blusak jantzita, pronto, gure Porrontxo jaietaz harro-harro, ekarri duten eta ekarriko duten lanaz harro, baina lan hori guztion artean egitea beti hobe izango dela ziur. Begira. Begira ezazu zure etxea eta ez zaitez izan galtzaundia: ez al litzateke askoz hobe guztiok sortzen dugun zikinkeriaren, jaten ditugun jakien, egin behar ditugun erosketen eta gainerako lanen aurrean elkartzea, lan hauek ere guztion artean banatzea. Etxeko andrearen irudia ezabatuko dugu horrela eta Mari Jaiak hartuko du haren lekua.

Eta zuk, neska, kontuan izan jaia zurea ere badela, zuk ere egiten duzula jaia eta gozatzen duzula jaiarekin. Eta gauez zein egunez ibiltzen bazara, askoz hobe. Tira, beraz, atera kalera!

Zuek, berriz, ez iezaizuela horretarako eragozpenik jarri. Ezetz! Arriskua ez dagoela kalean, baizik eta "erdiko hanka" horrekin pentsatzen duten horiengan. Aurrera! etxean geldituta ez ditugu erasoak ekidingo, eta ez dugu jairik izango. Nazkaturik gaude etxezuloaz eta alkolaren aitzakiez!

Jantzi ezazu blusa eta aide kalera!

Onenak diren jai hauek are hobeak izan daitezkelako, ondo pasau eta aurrera.

LARUNBATA. 12

11:00 Antxetaren eskutik haurrentzako joko tailerrak, Plaza Haundin*.

14:30 Bertso bazkaria,ZARAUTZEKO BERTSOLARIEN eskutik Plaza Haundin*

Koadrila bakoitzak bere bazkaria eramango du.

16:30 Dantzaldia GOIZUETAKO TRIKITILARIEKIN.

(Eguraldia behartuz gero ekitaldiak frontoian ospatuko lirateke)

ASTEAZKENA. 16

(koadrilen mozorroketa eguna).

19:00 Buruhandi eta erraldoiak Tapunto txarangarekin.

19:30 Koadrilen karrotxo politenaren aukeraketa.

(Jeitsiera hasten den lekuan).

20:00 Suziri, Burrunba eta Porrontxoen jeitsierarekin, **jaien hasiera.**

20:01 Kuadrilen jeitsiera TA PUNTO eta KILIKARIAK txarangarekin. **Karmengo Ama kalean zehar.**

22:00 Dantzaldia IZOTZ taldearen eskutik Plaza Haundin.

(Dantzaldiaren atsedenaldian Soka Saltoa)

23:30 Karaoke jokoa txosnen gunean.

23:30 KANTAURI txaranga.

00:30 Banana dantza jokoa Plaza Haundin.

OSTEGUNA. 17

12:00 Kuadrilen Txirringada (bizikleta martxa) auzoan zehar **Irteera eta bukaera Plaza Haundin** izango delarik.

13:00 Kuadriletako partaide eta auzotarrentzako **txurraskoa** .

18:00 Buruhandi eta erraldoiak LOS INCANSABLES txarangarekin.

18:30 Haur Jeitsiera LOS INCANSABLES txarangarekin Karmengo Ama kalean zehar.

19:30 Maria Reina eskolan haurrentzako **"Bonberoak" Dantzaldi-antzerki saioa,** HANKAGORRI taldearekin.EGIAKO KULTUR ETXEAK babestutako ekitaldia.

20:00 Koadrilen Poterri krosa jokoa auzoan zehar LOS INCANSABLES txarangarekin.
22:00 Dantzaldia TRAKETS taldearekin Plaza Haundin.
Dantzaldiaren atsedenaldian Soka-saltoa.
23:00 Antzerkia txosnen gunean. Sorginfesta antzeslana OSES ETA MARIA taldearen eskutik.
23:30 LOS INCANSABLES txaranga.
00:30 Puzgarrien jokoa Plaza Haundin.

OSTIRALA, 18

12:00 Haurrentzako Santi magoa Plaza Haundin.*

12:30 ALKORTA ANAI-ARREBEK eta AUZOKO TRIKITILARI GAZTE TALDEAK auzoa alaituko dute. GAZTE LOKALEKO ANIMAZIO TALDEAK eta ANTXETAKO PANDERO JOLEAK lagunduta.
17:00 Haur jokoak Plaza Haundin.*
18:30 Buruhaundi eta erraldoiak JATORRENAK txarangarekin.
18:30 Polikiroldegian IRUNEKO SAN MARZIAL eta ORIOKO OBB senior mailako, **emakumezkoen arteko Sofbol neurketa-erakustaldia**.(aipaturiko taldeak Euskadiko txapeldun eta txapeldunordea ditugu). SOFBOL EGIA KLUBAK antolatuta.
Neurketa amaitzerakoan Sofbolean aritzeko aukera haurrentzako pilota jaurtikigailu makina baten bitartez (19:30 inguruan)
19:00 GAZTE LOKALAK ATOLATUA **Graffiti maratoia gazteentzat Plaza Haundin***.
19:30 Kronoeskalada Karmengo Ama kalean gora.
20:30 Plaza Haundin Boleibol koadrilen arteko jokoa.
21:00 Kontzertua txosnen gunean, NAUN ETA JAUKO BARIK taldeen eskutik.
23:30 Dultze meneoa HAITZAMA taldearekin **Plaza Haundin.**
00:30 Plaza Haundin Sokatira koadrilen arteko jokoa.
01:00 TXINPARTA TXARANGA.
05:00 Baratxuri Zopa Arranoko kalestuan.

LARUNBATA. 19

PRESO, ERREFUXIATU ETA DEPORTATUEN EGUNA

09:00 Diana ORERETAKO DULTZAINEROEKIN.

10:00 Gladys Enea parkean haurrentzako txokolada eta haur jokoak JOKAITZA taldearekin: Rokodromoa, gazteluak, joko tailerrak....

10:00 Bertako produktuen azoka eta AUZOKO EMAKUME ZENTROAK antolatutako **erakusketa** GOIZUETAKO TRIKITILARIAK alaituta **Plaza Haundin.**

15:30 Polikiroldegian Porrontxo Jaietako 1ª Eskubaloi Txapelketa. Mutilen arteko Senior, Junior eta kadete mailetan EGIA ESKUBALOI KLUBAK antolatuta.

16:00 Mus txapelketaren finalak Plaza Haundin.*

16:30 Koadrilentzako Txokolatada eta kafea Plaza Haundin.*

17:00 Plaza Haundin Futbola erratzekin koadrilen arteko jokoa*.

17:30 KILIKARIAK TXARANGA.

18:00 Antzerkia Plaza Haundin.KASKETA KABARETA taldearen **Felisa Roderano antzeslan berriaren aurre-aurkezpena.***

19:30 Amnistiaren aldeko kalejira.

21:30 Koadrilen afaria EZTANGA ANAI-ARREBAREN TRIKITIXA alaituta.*Artzak jatetxean (je,je)*

23:00 Dantzaldia IRATXO taldearekin **Plaza Haundin.**

23:30 TA PUNTO txaranga

00:00 Ttunturroen kalejira auzoan zehar.

00:00 JATORRENAK txaranga.

01:00 TXINPARTA txaranga.

01:30 EZTANGA ANAI-ARREBAREN TRIKITIXA txosnen gunean.

IGANDEA. 20

07:00 Kuadrilentzako gosaria oilaskoekin Plaza Haundin.

07.30 KANTAURI TXARANGA.

08.00 Batelak Urumea ibaian.(bertaraino jeitsiera KANTAURI TXARANGArekin).

09:00 Diana ORERETAKO DULTZAINEROEKIN.

10:00 Porrontxo Jaietako 1ᵍᵒ Krosa herrikoia.Gizonezko zein emakumezko heldu, senior eta junior mailak. Parte hartzen duten **kuadriletako partaidentzako sari bereziak izango dira.**

11:00 Esku pilota eta pala txapelketen finalak pilotalekuan.

12:00 IRUÑAKO JOTEROAK Plaza Haundin.

13:00 Sagardo dastaketa INTXAURRONDOKO TRIKITILARIAK alaituta **Plaza Haundin.**

14:30 Bazkari herrikoia Plaza Haundin auzoko elkarte diren DONOSTIGAIN, UR-ZALEAK ETA ARRANOk prestaturiko menuarekin.* **ERROMERIA.**

17:00 Plaza Haundin Herri Kirolak koadrilentzako jokoa.*

18:30 Euskal dantzak Plaza Haundin TREBESKA taldearekin.*

19:30 Sardinada INTXAURRONDOKO TRIKITILARIAK alaituta eta jokuetako koadrila irabazleen zerrenda pasa eta saritxoen banaketa.*

20:00 KONTRAIRO TRIKITIXA taldearekin **dantzaldia Plaza Haundin**.

21:00 KILIKARIAK TXARANGA.

22:00.Kuadrilen kalejira auzoan zehar.

23:00.Azken traka, Burrunbada eta Porrontxinoaren erreketarekin **jaien amaiera.**

(*)Eguraldiak behartuko balu pilotalekuan ospatuko lirateke.

EZ APARKATU NO APARCAR

OHARRA: Auzokide kotxedunei laguntza eskatzen zaizue ondoren aipatzen diren egunetan eta lekuetan aparka ez dezazuen.

NOTA: Se solicita la colaboración de los vecinos/as propietarios de coches para que no aparquen en los días y lugares siguientes:

TEJERIAN: Kale honetako goiko aldea ostirala arratsaldetik larunbata gaua arte (koadrilen afaria, dela eta).

En la parte alta de la calle a partir del viernes a la tarde hasta el sábado a la noche (por la cena de cuadrillas).

TEJERIA ETA KARMENGO AMAN: Ostirala arratsaldean bigarren lerroan kronoeskalada.

Viernes ala tarde en doble fila por la cronoescalada.

PORRONTXO
EGIA
Jaiak 98
IRALLAK 12,16,17,18,19,20

JAIAK'
PORRONTXO 98
GLADYS-ENEA
IRAILLAK 12,16,17,18,19,20

PORRONTXO
JAIAK
1998
irailak 15 16 17 18 19 20
EGIA